

KANALAK

Kanal nagusietako bat sare sozialak dira, batez ere Instagram eta TikTok, bertan antolatutako ekitaldien irudiak eta bideoak partekatzen ditugulako, gure lana modu bisualean erakutsiz.

Horrez gain, webgune propioa dugu, non gure zerbitzuak, paketeak eta harremanetarako informazioa azaltzen diren, bezeroek informazio guztia modu argian eskuratu dezaten. Posta elektronikoa ere erabiltzen dugu bezeroekin harreman zuzena izateko, aurrekontuak bidaltzeko eta antolakuntza prozesuaren jarraipena egiteko.

Bestalde, ahoz ahozko komunikazioa funtsezkoa da guretzat, bezero pozik daudenek gure zerbitzua gomendatzen dutelako. Era berean, jatetxeekin, hotelekin eta bestelako elkarteekin dugun sareari esker, bezero berriak lortzen ditugu.